



EUSKOTRENEK, BURNIBIDEAREN MUSEOAREN BIDEZ, EUROPAKO BURDINBIDEAREN 20 MUSEOREN LANKIDETZAEKINTZAREN ADIERAZPENAREKIN BAT EGIN DU

- **Museoen Nazioarteko egunean, Euskotrenek bat egin du ekimen horrekin, ondare-eremuek pertsonen zaintzan izango duten eginkizun onuragarria erakusteko, Covid 19-arekin bizi garen testuinguru batean jendearentzat irekiak izan daitezkeenean.**
- **Adierazpenean jasotako helburuen artean dago Europako museo-jarduera berreskuratzen laguntzeko eta jarduteko estrategia bateratuak ezartzeko interesa.**

Euskotren, Azpeitiko Burnibidearen Euskal Museoaren eskutik, Espainiako Trenbideen Fundazioak sustatutako ekimen bati atxiki zaio, trenbidearen Europako hogeita museorekin batera. Ekimen horren helburua da ondare-espazioek jendearentzat irekita daudenean pertsonen zaintzan izango duten paper onuragarria erakustea, Covid-19rekin batera. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) baieztatu du arte- eta kulturajardueretan parte hartzeak osasun fisikoa eta mentala sustatzen duela. Ildo horretan, Europako burdinbide museoaren lehenengo ekintza maiatzaren 18an manifestu bat idatzi eta zabaltzea da.

Era berean, erakundeek, trenbide-konpainien ondare-sailek eta museoek, trenbideen historiaren eta, oro har, garraioaren nazioarteko elkarteek ere babestu dute manifestu hau.

Dokumentuak trenari eskainitako museo-zentroen berezitasunean eta trenbideen eta gizartearen artean ezartzen duten bizi-loturan jartzen du arreta. Neurri handiko ekipamenduak, garai bateko geltokiak, tailerrak edo lurrin tren-makinen biltegiak eraldatzearen ondorioz; toki egokiak dira inspirazio-iturri eta osasungarri diren bisitak sortzeko, ongizatearen mesedetan.

Europako burdinbide museo nagusiek sinatutako Adierazpenean jasotako helburuen artean dago, halaber, garraio-mota horren iraganeko, oraineko eta etorkizuneko garapen teknologikoa, ekonomikoa eta sozialari buruzko ondarearen balioari buruzko hausnarketa sustatuko duten aliantzak sortzea, eta baita Europako herritarrek trenen konfiantza izaten jarraitzea eta kontinente osoan mugitzeko duen zereginean laguntzea ere.

Guztira ekimen honekin bat egin duten Europako erakundeek hogeita zortzi izan dira, eta horien artean, Azpetiako Burnibidearen Museoaz gain honako hauek daude, Madrilgo, Kataluniako eta Asturiaseko museoak, York-en dagoen Europar Batasuneko Burdinbidearen Museo Nazionalea, Portugalekoa bere egoitza Entroncamenton daukana, Greziakoa Atenasen, DBko alemana, Hungaria, Norvegia, Letonia, Suedia, Belgika, Holanda, Lucernan Suitzako Garraioa edo Londoneko garraio museoak,



besteak beste. Etorkizunean aurrera egiten jarraitu nahi du proiektu horrek, eta lankidetzazko espirtua izan nahi du, gizartea sentsibiliza dadin museoek birusaren aurkako bizikidetzako Europako agertoki berri honetan duten garrantziaz.

Bien bitartean, museoek beraien ateak ireki arte, Euskotreneko Burnibidearen Museoak bere erakusketara bisita birtuala egiteko aukera ematen du www.euskotren.eus.

Igorpen data: 2020-05-18

Euskadi, auzolana, bien común

